

## I. CIVICANEN JARDUERAK GARATZEKO GUNEEN LAGAPENAREN KUDEAKETA

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak dohainik lagako dizkie CIVICANeko guneak Nafarroako Foru Komunitateko irabazi asmorik gabeko entitateei, erakundeei eta instituzioei, haren Laguntza Deialdiaren bidez laguntzen onuradun izan baldin badira.

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak gune horiek lagako ditu izaera kultural eta/edo sozialeko jarduerak bideratzeko, betiere publikoak eta irekiak baldin badira eta lantzen diren gaiak eta xedeak Nafarroako Kutxa Banku Fundazioarekin bat etortzen baldin badira.

### A. Eskaerak egitea:

A1. Entitateak CIVICANen gune bat eskatzen duen **lehen aldia** baldin bada, behar bezala bete beharko du **CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria**. Orri hori [www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es) web orrian eta CIVICANen dago eskuragarri. Era berean posta elektronikoz helarazi dezake Programazio Bulegoak.

CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria aurkezten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita 5 laneguneko izango da erabakia hartzeko epea.

Komunikatzeko metodoa: entitate eskatzailearen ordezkariari idatzirik (posta elektronikoz). Erabaki hori berehalakoan jakinarazi behar bada, telefonoz edo Zentroko langileen bidez komunikatu ahal izango da.

A2. Entitateak CIVICANen guneren bat eskatu ohi badu, behar bezala bete beharko du **CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria**.

CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria aurkezten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita 3/5 laneguneko izango da erabakia hartzeko epea.

Komunikatzeko metodoa: entitate eskatzailearen ordezkariari idatzirik. Erabaki hori berehalakoan jakinarazi behar bada, telefonoz edo Zentroko langileen bidez komunikatu ahal izango da.

A3. Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak egindako eskaerak ez dute arestian adierazitako erabaki epeak bete beharrik. Nolanahi ere, kasu guztietan beteko da **CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria**.

**B. Eskaerak hartzeko epea:**

**CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria** gunea lagatzeko eskatutako eguna baino gutxienez 15 egun lehenago izapidetuko da, eskaera orria aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Beranduenaz ere, CIVICANen hiruhileko programazioa ixtean.

**C. Dokumentazioa:**

Entitateak behar bezala beteko du CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera Orria, eta bertan zehazki azalduko ditu eguna, ordutegia, eskatutako gunea, jardueraren deskribapen laburra eta jarduera burura eramateko beharrezkoak dituen baliabide teknikoak.

Lehen aldia baldin bada entitateak CIVICANen gune bat lagatzea eskatzen duela, entitatearen eraketa agiriaren, estatutuen eta identifikazio txartelaren kopia bana aurkeztu beharko du, baita CIVICANen bideratuko duen edo dituen jarduerari buruzko txosten bat ere.

Egingo den jarduerak catering zerbitzua behar badu, CIVICANeko kafetegian kontratatuko da zerbitzu hori. Horretarako, harremanetan jarriko dira kafetegiko arduradunarekin, eta honek ekitaldi edo zerbitzu bakoitzaren ezaugarrietara egokitu daitezkeen proposamenak egingo ditu.

**D. Lagatzeko baldintzak**

Entitate eskatzaileak araudia beteko du, izena emateko Orria betetzean izango du araudi horren berri.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren programazioaren eta guneen erabilgarritasunaren mende daude guneak lagatzeko irizpideak.

Jardueraren garapenean beste entitate batzuek parte hartzen badute, edo beste entitate batzuen babesean egiten badira, edo beste erakundeetako agintariak bertaratzekoak badira, horien guztien berri emango zaio Nafarroako Kutxa Fundazioari.

Jardueraren zabalkundeetan (eskuko orriak eta kartelak, halakorik baleude) Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren logotipoa azalduko da ekitaldiaren laguntzaile gisa.

Lagatako guneetan ez dira Nafarroako Kutxa Fundazioari erreferentzia egiten dioten logotipoak edo panelak aldatuko, ordezkatu edo kenduko.

**E. Ukatzea:**

CIVICANeko guneak ez dira lagako:

- Kolektibo motak edo jarduerak berak izaera sozialari edo kulturalari erantzuten ez badiote.
- Jardueren xedeak zuzenean talka egiten badu Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren xedeekin.
- Izaera erlijioso, sindikal eta politikoko jarduerak baldin badira.

**E. Kasu bereziak:**

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak, instalazioen jabe eta Zuzendaritzako arduradun baita, arestian azaldutako protokoloak betetzen ez dituzten lagapenak egin ahal izango dizkie Erakunde Publikoei, esate baterako, Nafarroako Gobernuari eta Udalei, Profesionalen Elkargoei, Ikastetxeei eta Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren ildo estrategikoekin bat datozen beste jarduera batzuei.

**F. CIVICANeko guneak eta erabiltzeko baldintzak:**

<b>GUNEA</b>	<b>ERABILERA</b>
<b>Auditorioa</b> (153 eserleku)	Kongresuak Jardunaldiak Hitzaldiak Proiektzioak Aurkezpenak eta prentsaurrekoak Agertokiko ikuskizunak
<b>3. gela</b> (100 eserleku)	Kongresuak Jardunaldiak Hitzaldiak Proiektzioak Aurkezpenak eta prentsaurrekoak Ikastaroak
<b>I A gela - I B gela</b> (40 eserleku)	Ikastaroak Bilerak Batzarrak
<b>2. gela</b> (30 eserleku)	Ikastaroak Bilerak Batzarrak
<b>4. gela</b> (30 eserleku)	Ikastaroak Bilerak Batzarrak
<b>Dantza gela</b> (25 leku)	Ikastaroak
<b>Sukalde gela</b> (25 leku)	Ikastaroak Salgaien aurkezpena

Bereiz fakturatuko da Sukalde Gelako garbiketa (35,78 € + % 21% BEZa erabilera bakoitzeko)

Irigarriak dira eraikineko gune guztiak.

Entitate eskatzaileak bete egingo du araudia, eta saihestu egingo du behar baino jende gehiago biltzea.

## **2. CIVICANEN JARDUERAK GARATZEKO GUNEEN ALOKAIRUAREN KUDEAKETA**

CIVICANeko guneak alokatu (ordainduta) ahal izango zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko irabazi asmorik gabeko entitateei, erakundeei, elkarteei eta fundazioei Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren Laguntza Deialdiaren bidez laguntzen onuradun izan baldin badira eta garatu beharreko jarduerak merkataritza izaera baldin badu, esate baterako, ikastaroetan edo jardunaldietan izen ematea ordaindu behar bada eta/edo aurkezpenetan liburuak saltzen badira. Halako kasuetan, tarifa berezi batekin alokatuko ditu CIVICANek bere guneak.

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak gune horiek alokatuko ditu izaera kultural eta/edo sozialeko jarduerak bideratzeko, betiere publikoak eta irekiak baldin badira eta lantzen diren gaiak eta xedeak Nafarroako Kutxa Banku Fundazioarekin bat etortzen baldin badira.

### **A. Eskerak egitea:**

A1. Entitateak CIVICANen gune bat eskatzen duen **lehen aldia** baldin bada, behar bezala bete beharko du **CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria**. Orri hori [www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es) web orrian eta CIVICANen dago eskuragarri. Era berean posta elektronikoz helarazi dezake Programazio Bulegoak.

CIVICANeko guneak alokatzeko eskaera orria aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita 5 lanegunekoa izango da erabakia hartzeko epea.

Komunikatzeko metodoa: entitate eskatzailearen ordezkariari idatzirik (posta elektronikoz). Erabaki hori berehalakoan jakinarazi behar bada, telefonoz edo Zentroko langileen bidez komunikatu ahal izango da.

A2. Entitateak CIVICANen guneren bat alokairupean hartzeko eskaera egin ohi badu, behar bezala bete beharko du **CIVICANeko guneak lagatzeko eskaera orria**. Orri hori programazio taldeak helaraziko dio posta elektronikoz, edo Zentroan bertaratuta emango zaio.

CIVICANeko guneak alokatzeko eskaera orria aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita 3/5 lanegunekoa izango da erabakia hartzeko epea.

Komunikatzeko metodoa: entitate eskatzailearen ordezkariari idatzirik. Erabaki hori berehalakoan jakinarazi behar bada, telefonoz edo Zentroko langileen bidez komunikatu ahal izango da.

A3. Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak egindako eskaerek ez dute arestian adierazitako erabaki epeak bete beharrik. Nolanahi ere, kasu guztietan beteko da **CIVICANeko guneak alokatzeko eskaera orria**.

**B. Eskaerak hartzeko epea:**

**CIVICANeko guneak alokatzeko eskaera orria** gunea alokatzeko eskatutako eguna baino gutxienez 15 egun lehenago izapidetuko da, eskaera orria aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Beranduenez ere, CIVICANen hiruhileko programazioa ixtean.

**C. Dokumentazioa:**

Entitateak behar bezala beteko du CIVICANeko guneak alokatzeko eskaera Orria, eta bertan zehazki azalduko ditu eguna, ordutegia, eskatutako gunea, jardueraren deskribapen laburra, sarrera mota eta jarduera burura eramateko beharrezkoak dituen baliabide teknikoak.

Lehen aldia baldin bada entitateak CIVICANen gune bat alokatzea eskatzen duela, entitatearen eraketa agiriaren, estatutuen eta identifikazio txartelaren kopia bana aurkeztu beharko du, baita CIVICANen bideratuko duen edo dituen jardueri buruzko txosten bat ere. Era beran, IFKri eta alokairua fakturatzeko kontu zenbakiari buruzko informazioa emango du.

Egingo den jarduerak catering zerbitzua behar badu, CIVICANeko kafetegian kontratatuko da zerbitzu hori. Horretarako, harremanetan jarriko dira kafetegiko arduradunarekin, eta honek ekitaldi edo zerbitzu bakoitzaren ezaugarrietara egokitu daitezkeen proposamenak egingo ditu.

**D. Ukatzea:**

CIVICANeko guneak ez dira honako jardueretarako alokatuko:

- Jardueren xedeak zuzenean talka egiten badu Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren xedeekin.
- Izaera erlijioso, sindikal eta politikoko jarduerak baldin badira.

**E. CIVICANeko guneak, erabiltzeko baldintzak eta tarifak:**

GUNEA	ERABILERA	TARIFA OROKORRA	TARIFA BEREZIA
<b>Auditorioa</b> (153 eserleku)	Kongresuak	500 € (egun osoa)	250 € (egun osoa)
	Jardunaldiak	350 € (egun erdia)	175 € (egun erdia)
	Hitzaldiak	100 € (ordu 1)	50 € (ordu 1)
	Proiektzioak Aurkezpenak prentsaurrekoak	eta	
	Agertokiko ikuskizunak		
<b>3. gela</b> (100 eserleku)	Kongresuak	350 € (egun osoa)	175 € (egun osoa)
	Jardunaldiak	175 € (egun erdia)	87,50 € (egun erdia)
	Hitzaldiak	70 € (ordu 1)	35 € (ordu 1)
	Proiektzioak Aurkezpenak prentsaurrekoak	eta	
	Ikastaroak		
<b>I A gela - I B gela</b> (40 eserleku)	Ikastaroak	300 € (egun osoa)	150 € (egun osoa)
	Bilerak	150 € (egun erdia)	75 € (egun erdia)
	Batzarrak	50 € (ordu 1)	25 € (ordu 1)
<b>2. gela</b> (30 eserleku)	Ikastaroak	300 € (egun osoa)	150 € (egun osoa)
	Bilerak	150 € (egun erdia)	75 € (egun erdia)
	Batzarrak	50 € (ordu 1)	25 € (ordu 1)
<b>3. gela</b> (30 eserleku)	Ikastaroak	300 € (egun osoa)	150 € (egun osoa)
	Bilerak	150 € (egun erdia)	75 € (egun erdia)
	Batzarrak	50 € (ordu 1)	25 € (ordu 1)
<b>Dantza gela</b> (25 leku)	Ikastaroak	300 € (egun osoa)	150 € (egun osoa)
		150 € (egun erdia)	75 € (egun erdia)
		50 € (gehienez ordu 1)	25 € (ordu 1)
<b>Sukalde gela</b> (25 leku)	Ikastaroak	450 € (egun osoa)	225 € (egun osoa)
	Salgaien aurkezpena	200 € (egun erdia)	100 € (egun erdia)
		75 € (ordu 1)	37,50 € (ordu 1)
<b>*Igerilekua</b>	Ikastaroak Sendatzeko jarduerak Prestakuntza jarduerak Kirol jarduerak Jolas jarduerak	110 € saioak (45 min)	55 € saioak (45 min)

Bereiz fakturatuko da Sukalde Gelako garbiketa (35,78 € + % 21% BEZa erabilera bakoitzeko).

Adierazitako prezio guztiei (igerilekuari dagokionari izan ezik) BEZa aplikatuko zaie (% 21).

Irisgarriak dira CIVICANeko guneak.

Entsegu eta prestaera teknikoetarako orduak barne.

Entitate eskatzaileak bete egingo du araudia, eta saihestu egingo du behar baino jende gehiago biltzea.

\*Igerilekuko segurtasun eta osasun irizpideei jarraiki, Nafarroako Kutxa Fundazioak izendatutako monitore tituludunek zainduko eta egikarituko dute gune honen erabilera.

\*Entitate eskatzaileak jarduera burura eramateko monitorea jartzen badu ere, Nafarroako Kutxa Fundazioak izendatutako sorosle batek gainbegiratu beharko du instalazioa.